



# Denbora-



## 1 Antonimoekin jolasean

Martin aireportura iritsi diren maletak sailkatzen ari da. Maleta bakoitzak hitz bat dauka idatzia. Antonimoak edo aurkako adjektiboak dituzten bi maletak elkartzea da Martinen lana. Lagunduko al diozu?



## 2 Irudiak ordenatu

Elurtximinoak bi hilabete baino ez dituen arren, izugarri gustatzen zaio bananak jatea. Lagunduko al diozu banana zuritzen? Irudiak ordena egokian ipini behar dituzu.

## 3 Labirintoa


Patxi arotzaren zerra lan egin ezinik dabil, egurra ihesi joan baitzaio. Lagunduko al diozu zerrari egurrera eramango duen bidea bilatzen?

# -pasak

4


## Hitz gurutzatuak

Julen eta gelakideak alfabetoa ikasten aritu dira eskolan. Jakin nahi al duzu zein hizki landu duten? Lotu zenbakiak, eta hizkia irakurri ahal izango duzu.



## Antonimoen jolasa

Zure lagunei proposatzeko jolas bizi bat erakutsi nahi dizugu. Irakurri arretaz azalpenak. Ikusiko duzu zein erraza den!





1. Jokalarietako batek hitz bat esan behar du. Hitz horrek, ordea, antonimoa eduki beharko du jolasak aurrera egin dezan. Adibidez, eguna.
2. Gainerako jokalariek antonimoa zein den esan beharko dute. Kasu honetan, gaua.
3. Bizkorren erantzun duen jokalaria hartuko du txanda. Horrek hurrengo hitza esango du.
4. Agian norbaitek antonimorik ez duen hitzen bat esango du; adibidez, etxea. Orduan, horretaz bizkorren ohartu den jokalaria hartuko du txanda. Berak esan beharko du hurrengo hitza.

5

## Puzzlea

Leirek bi puzzle zituen etxean.

Oharkabean, bi puzzleetako zatiak nahasi ditu. Puzzleak osatzen hasi da, baina zati bat falta zaio. Zein falta da?



Erantzunak: 1.-Trakets-trebe, eder-itsusi, distiratsu-lluun eta penagarri-pozgarri. 2.-1-A, 2-G, 3-C, 4-D, 5-F, 6-B. 4.-G hizkia. 5.-A.